



# AGIFESEN KONTAKIZUN LABURREN IX. LEHIAKETA


Zaila egiten zaigu, askotan, buruko osasun arazo bat dugunean, ahaideei eta adiskideei nola sentitzen garen azaltzea. Depresioaren kasuan, nahasmendu hau tristurarekin edota gogo faltarekin lotzen dute askok, baina arazoa hori baino askoz konplexuagoa eta sakonagoa da.

Hori dela eta, AgifeseK Kontakizun Laburren IX. Lehiaketa jarri du abian, nahasmendua pairatzen dutenen sufrimendu psikikoa azalertzeko eta adierazteko eta, aldi berean, imaginario kolektiboa zabaltzeko helburuarekin.

## **Depresioa nola ulertzen duzun jakitea gustatuko litzaiguke. Istorio baten bitartez adieraztera animatuko al zara?**

Baliteke erronka erraza ez izatea, baina onuragarria izango da ziur, gure arazoak partekatzea eta ingurukoen laguntza jasotzea bezainbeste.

Zure proposamena irakurtzeko irrikan gaude!



## PARTE-HARTZEA

- 18 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute, eta Estatuko biztanle izan beharko dute.
- Adin txikikoek ere guraso edo tutoreak sinatutako baimenarekin parte hartu ahal izango dute. Baimen agiria dokumentuaren amaieran dago eskuragarri.

## GAIA

- Idazlanak depresioaren ingurukoak izan behar dute.
- Estigmari gaitzen eta aurreiritziak ezabatzen laguntzen duten lanak bereziki baloratuko dira.
- Lanen sormena, originaltasuna eta kalitate literarioa kontuan hartuko dira.

## LANEN AURKEZPENA

- Pertsona bakoitzak ezin izango ditu 5 idazlan baina gehiago aurkeztu.
- Kontakizunak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira.
- Ez da onartuko aurrez saritua izan den edota beste lehiaketaren batean epairen zain dagoen lanik, eta argitaragabeko idazlanak izan beharko dute. Ezin izango dira, halaber, argitaletxeren batekin konpromisoa daukaten lanak aurkeztu.
- Ez da onartuko egileak egin ez duen edo egilearen jabetzakoa ez den idazlanik.

- Parte-hartzaileak AGIFESen kontakizun lehiaketara aurkeztutako lan guztien egile eskubideen jabe bakarra dela adierazten eta bermatzen du. Gainera, aurkeztutako lanek hirugarrenen eskubiderik ez izatearen arduradun da.
- Idazlanak ordenagailuz idatzita aurkeztu behar dira. Gehienez 5 orrialdeko luzera, espazio bikoitzean idatzita, 12 puntuko tamainako Times New Roman tipografiarekin.
- Idazlanak info@agifes.org helbidera bidali behar dira eta honako informazioa erantsi behar da beste dokumentu batean: Izena, Abizenak, NAN zenbakia edo pasaportearen e-maila eta telefono zenbakia.

## LANAK AURKEZTEKO EPEA

- Lanak aurkezteko epea **2020ko abenduaren 13an, igandea**, amaituko da.
- Agifesek lanak gordetzeko eskubidea dauka.

## LAN IRABAZLEEN AUKERAKETA

- Agifesen Sentsibilizazio Batzordeak hautatuko ditu hiru lan irabazleak. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.
- Aurkeztutako lanek adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte, sariren bat edo guztiak hutsik uzteko erabakia har dezake Agifesen Sentsibilizazio Batzordeak.
- Pertsona berak ezingo ditu bi sari edo gehiago jaso, nahiz eta lan bat baino gehiago aurkeztu.
- Saritutakoen izenak eta lanak [www.agifes.org](http://www.agifes.org) webgunean argitara emango dira. Gainera, irabazleei e-mail edota telefono bidez jakinaraziko zaie irabazi dutela.

## AURKEZTUTAKO LANAK ARGITARATZEA

- Agifesez ez ditu lehiaketara aurkeztutako idazlanak helburu komertzialekin erabiliko, ezta horiek egileen baimenik gabe hirugarrenei banatuko ere.
- Lehiaketara aurkeztutako idazlanak, beti ere egilearen izena aipatuz, elkartearen jabetzakoak diren komunikazio kanaletan (webgunea, sare sozialak eta elkarteko aldizkaria) mugarik gabe argitaratzeko edota erreproduzitzeko eskubidea gordetzen du Agifesez.

## ONESPENA

- Parte hartzearekin batera, aurrez adierazitako baldintzak onartzen ditu partaideak.

## SARIAK

- Honako sariak banatuko dira:
  - **1. saria:** 400 euro eta diploma
  - **2. saria:** 200 euro eta diploma
  - **3. saria:** 100 euro eta diploma
- **Euskarazko Idazlan Onenari Saria**, hizkuntza honetan idatzitako idazlanak bultzatzea helburu duena. Irabazleak 100 euro eta diploma jasoko ditu (\*Sari hau banatuko dugu, soilik, hiru irabazleen artean euskarazko idazlanik ez badago).

## DATU PERTSONALEN BABESA

BURU OSASUN ARAZOA DUTEN PERTSONEN ETA SENIDEEN GIPUZKOAKO ELKARTEAK lehiaketan parte hartzeko emandako datuen tratamenduaren arduradun gisa, jakinarazten du honako helburuekin jaso direla datuak: elkarteak antolatutako zozketa edo lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen datuak kudeatzea. Tratamendurako oinarri juridikoa parte-hartzailearen oniritzia da. Zure datuak ezingo dira hirugarrenekin partekatu zure onarpenik gabe. Edonork du eskubidea bere datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta euren erabilera mugatzeko gure bulego nagusira idatziz edo emaila bidaliz [agifes@agifes.org](mailto:agifes@agifes.org) helbidera. Informazio gehigarria duzu [www.agifes.org](http://www.agifes.org) webgunean.

## GURASO EDO TUTOREEN BAIMENA

\_\_\_\_\_ jaun/andreak, \_\_\_\_\_  
NAN zenbakidunak, \_\_\_\_\_-ren ama, aita edo  
tutorea dela baieztatzen du eta \_\_\_\_\_-ri bai-  
mena ematen dio Agifesen IX. Kontakizun Laburren Lehiaketan parte hartzeko, lehiaketa  
honetarako zehaztutako oinarriak onartuz.

BURU OSASUN ARAZOA DUTEN PERTSONEN ETA SENIDEEN GIPUZKOAKO ELKARTEAK  
lehiaketan parte hartzeko emandako datuen tratamenduaren arduradun gisa, jakinarazten  
du honako helburuekin jaso direla datuak: elkarteak antolatutako zozketa edo lehiaketetan  
parte hartzen duten pertsonen datuak kudeatzea. Tratamendurako oinarri juridikoa parte-  
hartzailearen oniritzia da. Zure datuak ezingo dira hirugarrenekin partekatu zure onarpenik  
gabe. Edonork du eskubidea bere datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta  
euren erabilera mugatzeko gure bulego nagusira idatziz edo emaila bidaliz [agifes@agifes.org](mailto:agifes@agifes.org)  
helbidera. Informazio gehigarria duzu [www.agifes.org](http://www.agifes.org) webgunean.

Data: